

ARABA
Urteko Memoria
2017



Pertsonengandik gero eta hurbilago



Gurutze Gorria

© Arabako Gurutze Gorria

Dokumentu honetako e dozein a tal aipatua, kopiaua, beste hizkuntza batzuetara itzulia edo egokitua izan daiteke tokiko premiei erantzuteko Arabako Gurutze Gorriaren baimenik gabe, betiere iturria argi aipatzen bada.

Argitaratzailea:
Arabako Gurutze Gorria
Gaztelako Atea, 52
01007 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako emaila: alava@cuzroja.es



Argitalpen honetarako C yclus Print paper % 100 birziklatua erabili da, FSC® Recycled ziurtagiria du eta kolore zuri naturala dauka.



Estíbaliz Arnaiz López

Arabako Gurutze Gorriko presidentea



Aurten ere, atsegin handiz aurkezten dizuet milaka eta milaka pertsona ezezagunen alde egindako lanaren edukia; pertsona horiek guztiek arreta jaso dute gure eskutik, oso bereziki gure lurraldean, baina baita gure herrialdetik kanpoko mugetatik haratago ere .

2017. urtea lan-urte trinkoa izan da, guztioi eragiten badigute ere gizarte-egoera ahuleko taldeak askoz ere gogorrago kolpatzen dituzten krisi eta ekonomiko eta sozialek oso bereziki baldintzatu dutenak. Ildo horretan, gure erakundeak pertsona horien guztien alde hartutako konpromisoa ez da moteldu, eta haien aldeko ekimen eta planak garatzen jarraitu dugu .

Proiektu berriek konpromiso garrantzitsua lortu dute hainbat administrazio eta erakunderen eskutik, eta pertsonen premiei erantzuteko Gurutze Gorriak aspalditik aurrera daramatzen gainerako ekimenekin batera garatzen dira.

Urte osoan jarraitu dugu garatzen ditugun esku-hartzeetan lanean. Gure egunerokoari zentzua emate diote: adinekoentzako, etorkinentzako, langabeentzako, haur eta gazteentzako laguntza; larrialdietarako edo osasunaren aldeko jardunak; mota guztietako prestakuntza soziosanitarioa; nazioarteko lankidetzak; edo sentsibilizazio orokorreko jarduerak.

Beti bezala, Gurutze Gorriak hori guztia aurrera eramanez ahal izan du 10.494 pertsona eta enpresa bazkideren eta erakundeak Araban dauzkan 936 boluntarioen ezinbesteko eta funtsezko ahaleginei esker, baita Gurutze Gorriaren kausa altruista eta humanitarioa babesten duten administrazio, erakunde eta enpresa pribatu ugarien laguntzari esker ere.

Estíbaliz Arnáiz López

Arabako Gurutze Gorriko presidentea

IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun individualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

GIZATASUNA • INPARTZIALTASUNA • NEUTRALTASUNA INDEPENDENTZIA • BOLUNTARIOTZA • BATASUNA • UNIBERTSALTASUNA

ARABAKO GURUTZE GORRIAREN HERRI-BATZARRAK

Vitoria-Gasteiz

Gaztelako atea, 52 • 01007
Tel. 945 222 222
vitoria@cruzroja.es

Laudio

Zumalakarregi Etorb, 62 • 01400
Tel. 946 726 458
llodio@cruzroja.es

Kanpezu

Samuel Picaza plaza, 1 • 01110
Tel. 945 415 112
campezo@cruzroja.es

Amurrio

C/ Bañuetaibark, z/g • 01470
Tel. 945 393 188
amurrio@cruzroja.es

Urduña

Kale Nagusia 3, behea • 48460
Tel. 945 384 084
orduna@cruzroja.es

Oion

Beheko Larraineta, 1 • 01320
Tel. 945 622 660
oyon@cruzroja.es

4

ARRETA GUNEAK

Espejo

Tuesta bidea, z/g

Guardia

Berberana Zehrbidea, 5 behea

Agurain

Kale Nagusia 17-1º



ZER EGITEN DUGU?

- 06** · OSASUNA
- 08** · SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK
- 10** · GIZARTE ESKU-HARTZEA
- 18** · ENPLEGUA
- 22** · PRESTAKUNTZA
- 24** · INGURUMEN PLANA
- 26** · GAZTEEN GURUTZE GORRIA
- 30** · NAZIOARTEKO LANKIDETZA

NORK EGITEN DU?

- 32** · BOLUNTARIOTZA
- 36** · TOKIKO GARAPENA

NOLA EGITEN DUGU?

- 40** · BALIABIDEAK
- 41** · KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

NOLA FINANTZATZEN DA?

- 42** · FUNTS-BILKETA

ARABAKO GURUTZE GORRIAREN ZIFRAK

- 44** · KUDEAKETA EKONOMIKOA

KALITATE-ZIURTAGIRIAK

- 46** · KALITATE-ZIURTAGIRIAK



OSASUNA

Bizitzeko ohitura eta estilo osasungarrien sustapena

...

Gurutze Gorrian, jarrera aktiboa agertzen dugu ohitura kaltegarriak saihesteko eta osasuntsuagoak izateko, eta gure ingurukoen osasunaren sustatzaileak ere bagara.

Osasunerako hezkuntza haurtzaroan eta gaztaroan

Ikasturtearen barruan, ikastetxeetara joaten gara ohitura osasungarriari, substantzien kontsumoaren prebentzioari, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen prebentzioari, GIBari eta elikadurari eta nutrizioari buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzeko. Informazio gehiago lor dezakezu gure prebentzio-eremuan: www.pre20.es.

Istripuen prebentzioa

Istripuen kopurua murrizten laguntzeko kanpaina espezifikoak, aldi baterakoak edo iraunkorrek egiten ditugu: kolektibo espezifikoekin, adinekoekin, haurrekin, astialdian, udan eta, bereziki, gidatzeko modu seguru eta arduratsuari begira. Istripuak Europar Batasuneko heriotzen laugarren eragilea dira.

Ohitura osasungarrien sustapena

Ohitura osasungarriak sustatzeko kanpaina bat jarri dugu abian, herritar guztiei zuzendua. Urte osoan, hainbat gai landu ditugu, eta haien inguruko gomendioak proposatuko ditugu, informazio hori eskuratzen duten pertsonen osasun-maila hobetzeko.

Apirilaren 7a, Osasunaren Munduko Eguna

Urtero bezala, Osasunaren Munduko Eguna ospatuko da apirilaren 7an. 2017an, Osasunaren Mundu Erakundeak pertsona guztientzako osasuna proposatu zuen gai nagusi gisa. Kanpaina horren bitartez, Gurutze Gorriak herritarrak sensibilizatu eta informatu nahi izan ditu ohitura osasungarriak abian jarri beharraren inguruan, honako hiru ardatz nagusi hauek oinarritzat hartuta: elikadura orekatua, ariketa erregularra egitea eta burua osasuntsu mantentzea. Horretarako, Gurutze Gorriak "Quiérete" ("Maite ezazu zure burua") doako APP berria abiarazi du gailu mugikorretarako, haren bitartez, pertsona guztiek informazio osasungarriari buruzko edukietan sartzeko eta zenbait erronka betetzeko aukera izan dezaten, osasungarriak ez diren ohiturak bertan behera utzi eta pertsona guztientzako osasuna ahalbidetzearen. App storen eta Play storen dago eskuragarri.

PROIEKTUAK

GIB-HIESaren arreta eta prebentzioa

GIB izeneko birusak eragindako gaixotasuna da Hiesa. GIBak immunologia-sistema ahultzen du, eta errazagoa da gaixorik jartzea. Birusa detektatzeko modu bakarra GIBaren proba egitea da.

Arabako Gurutze Gorrian, listu bidezko GIBaren proba bizkorra egiteko arreta eskaintzen dugu. Proba horrek



% 97ko eraginkortasuna dauka. Anonimoak eta doakoak dira beti.

Probak egiteko ezarritako eguna eta ordua betetzea baino ez da eskatzen. Gurutze Gorriaren Tokiko Batzarrean egiten dira, Gasteizen, astelehenetan, 16:00etatik 18:00etara.

GIBaren Nazioarteko Eguna zela-eta, kalean informazioa emateko eta probak egiteko gune bat jarri genuen. Gainera, osasun-arloko boluntarioak transmititzeko arriskua duten gaixotasunen inguruan sentibilizatzeko prestakuntza-ekintza bat egin zen.

DATUAK:

75 pertsonari eman zaie laguntza.

GIBaren 71 proba egin dira.

Osasunaren sustapena

Lehen Laguntzetako prestakuntzari esker, pertsonak bizitzak salba ditzakete inolako diskriminaziorik gabe. Kontuan hartu behar da, gainera, hondamendien ondoren salbatzen diren bizitza guztietatik bertako herritarrek ehuneko 90 salbatzen dutela. Trebakuntza hori esku hartu duten edo geroago esku hartuko duten pertsona guzientzat da, hala sorosle profesionalentzat nola profanoentzat.

Lehen Laguntzen Munduko Egunean, bi jarduera-egun antolatu genituen Jesus Guridi kalean (Hornidura Plazan) eta Ataria Interpretazio Zentroan.

DATUAK

12 boluntariok hartu dute parte.

2.000 pertsonari eman zaie laguntza.



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

Arrisku-egoera guztiei egiten diegu aurre (baso-suteei, lurrikarei, elurteei, uholdeei eta abar), eta, horretarako, egoera horiek konpontzen laguntzen dugu eta berehalako eta larrialdiko erantzuna eskaintzen dugu, laguntza jarraituko planteamendua ahaztu gabe.

...

LURREKO PREBENTZIO-ZERBITZUAK

Ekitaldi batzuetan haien ezaugarriengatik edota parte-hartzaileek edo ikusleek lesioak jasateko zuten arriskuarengatik partikularrek eta erakunde publikoek eskatu zuten osasun-estaldura eman da.

Eskari horiei erantzuteko, Oinarrizko Bizi Euskarriko bost anbulantzia ditugu Gasteizen, beste bat Laudion eta beste bat Amurrian.

DATUAK:

- > **306 zerbitzu eman dira.**
- > **500 pertsonari eman zaie laguntza**

LARRIALDIETAN BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO TALDEA (LBEET)

> LAGUNTZA PSIKOSOZIALEKO LBEET-A

Laguntza Psikosozialeko Taldea honako kategoria hauetako boluntarioek osatzen dute: psikologoek, laguntza-sorosleek eta erizainek. Taldeak larrialdi handi samarretan ematen du laguntza, eta kasuen % 100etan S.O.S. Deiak zerbitzuaren bidez mobilizatzen da.

DATUAK:

- > **3 esku-hartze.**
- > **3 pertsonari eman zaie** zuzeneko laguntza.
- > **2 prestakuntza boluntarioentzat.**

> LURREKO BILAKETA ETA SALBAMENDUKO LBEET-A

Barneko zein kanpoko zenbait prestakuntza eraman ditugu aurrera, askotariko esparruetan, hala nola klimatologia, bilaketak txakurrekin eta txakurrik gabe, 4X4 gidatzea, erreskatea helikopteroarekin, GPSa, etab.

DATUAK:

- > **18 esku-hartze.**
- > **75 pertsonari eman zaie** zuzeneko laguntza.
- > **8 praktika eta proba** egin dira entrenatzeko.
- > **4 prestakuntza boluntarioentzat.**

8





> **BEHIN-BEHINEKO ATERPEAK EGITEKO LBEET-A**

Talde hau herritarrentzat diharduten beste talde batzuei datuak hartzeko, aterpea eta laguntza eskaintzeko eta beste jarduera batzuetarako larrialdietako denda-egiturak muntatzen laguntzeko prestatuta dago. Halaber, 300 pertsonari aterpea emateko (ohatila eramangarriekin eta tapakiekin) eta horrelako premia batean beharrezkoak diren premiazko edariak eta garbiketa pertsonaleko kitak eskaintzeko prestatuta dago.

- > 4 esku-hartze elurteengatik edo eguraldi txarrarengatik
- > 600 pertsona artatu ditugu
- > 3 prestakuntza
- > 3 praktika

LARRIALDIETAN SENTSIBILIZATU ETA INFORMATZEKO TALDEA (LSIT)

Gazteen Gurutze Gorriko hamar boluntarioz osatutako unitatea da, eta hondamendi baten kasuan herritarren (eta, bereziki, haurren, nerabeen eta gazteen) informazio-premiak zehatz eta bizkor betetzeko zereginen espezializatuta dago. Horrez gain, larrialdiko biktimentzako laguntza humanitarioko ekintzak finantzatzera bideratutako dohaintzak egiteko beharrezkoa den informazioa ematen dute.

DATUAK:

- > LSITa ez da mobilizatu 2017. urtean.
- > Sentsibilizazio-jarduera bat egin da beste erakunde batzuekin eta errefuxiatuen eskubideetarako Nazioarteko Lankidetzako Sailarekin batera.



GIZARTE ESKU-HARTZEA

Kalteberatasun-egoerarik handieneko pertsonentzako laguntza

ADINEKO PERTSONEN PROGRAMA

Etxez etxeko laguntza osagarria

Adinekoek autonomiarekin bizitzen jarraitzeko duten ahalmena hobetu nahi dugu haien zirkunstantziak kontuan hartuta, etxetik irteteko unea ahal den neurrian atzeratzeko.

10


Adinekoen isolamendua saihesteko banakako eta taldeko jarduerak egiten ditugu, eta haien mugikortasuna eta ingurunearekiko kontaktua errazten dugu. Jarduna ez da etxeko eremura mugatzen. Aitzitik, komunitatean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko aukera sustatzen da, elkarren arteko laguntza eta belaunaldien arteko harremana bultzatzeko.

Horretarako, honako hauek egiten ditugu:

- Akonpainamenduak.
- Kudeaketak.
- Laguntza-produktuen mailegua.
- Belaunaldi arteko topaketa sustatzen duten ekintzak eta aisia eta astialdiko jarduerak.
- Prestakuntza-jarduerak.
- Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak.
- Etxeko konponketa txikiak.
- Jarraipen-agendak.

DATUAK:

> **475 pertsona** guztira, 214 gizonezko eta 261 emakumezko. **2.727 esku-hartze** izan dira guztira.



475

Pertsonak, guztira

214

Gizonezkoak



261

Emakumezkoak



JARRAIPEN-DEIEN KOPURUA	
Hilabeteak	Dei kopurua
Urtarrila	567
Otsaila	572
Martxoa	669
Apirila	345
Maiatza	600
Ekaina	734
Uztaila	503
Abuztua	116
Iraila	714
Urria	533
Azaroa	335
Abendua	418
GUZTIRA	6.106

Etxeko telelaguntza

Bizilekutik ekipamendu telefoniko eta informatiko baten bitartez berehala harremanetan jartzeko aukera eskaintzen diogu pertsonari. Horretarako, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan funtzionatzen duen laguntza-zentral bat dago.

Alarmen arretaz gain, akonpainamendua eta babesa ere eskaintzen ditu, proiektu honen euskarri nagusi diren boluntarioen bitartez. Boluntarioen esku-hartzearekin, adinekoak isolatuta geratzea saihesten da, haien mugikortasuna eta ingurunearekiko kontaktua sustatzen da eta, horrez gain, aurrea hartzen zaie arrisku-egoerei.

Boluntarioek entzun egiten dute, babesa ematen dute, eta esku-hartzearen erreferente komunitarioak dira. Elementu horrek beste erakunde batzuetatik bereizten du Gurutze Gorria.

DATUAK:

> **28 pertsona guztira**, esku-hartze 1 osasun-alorrean eta 61 esku-hartze sozial. **62 esku-hartze** guztira.



Adineko pertsonentzako Sare Soziala: Enréd@te

Enréd@te proiektuaren helburua da adineko pertsonen ingurune hurbil eta komunitarioko harreman sozialak hobetzea, parte-hartzea sustatzeko, bakardadeari aurre egiteko eta belaunaldien arteko harremanak hobetzeko, familia barruan zein kanpoan.

Adineko pertsonak beren etxean ahal beste denbora gera daitezen laguntzen du, eta haien garapen soziala beren zahartze-prozesuan bizi-kalitatea hobetzeko erabakigarria izatera bultzatzen du.

Arazoari kontzientziazioaren, trebakuntzaren, lankidetzaren eta parte-hartzearen bitartez aurre egiteko lau esku-hartze lerroren bidez gauzatzen da:

- Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak.
- Gaitasunak eskuratzeko jarduerak.
- Adineko pertsonari aisiarako, parte hartzeko eta harreman pertsonalei eusteko eta/edo haiek hobetzeko guneetara joaten lagunduko dioten jarduerak.
- Adineko pertsonen parte-hartze eta aktibazioarako jarduerak.

DATUAK:

> Guztira 94 pertsona artatu ditugu, 56 emakume eta 38 gizon. 1.688 laguntza individual. 10 talde-irtenaldi, topaketa... (batez beste 12 pertsona bertaratu dira).



Zahartze osasungarriaren sustapena: osasun iraunkorra

65 urtetik gorako adinekoei laguntzen diegu bioneurriak hartzearen eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko hitzaldietan parte hartzearen bidez. Hona hemen ohitura horietako batzuk: elikadura osasungarria, loaren higieena, osasun emozionala, jarrera-higieena, hipertentsioaren prebentzioa edo zaintza eta abar. Halaber, aisia eta astialdiko jarduerak, paseo osasungarriak eta abar egiten dira.

Horrelako jarduerak sustatze aldera, erabiltzaile bakoitzari podometro bat ematen zaio ibiltzea sustatzeko eta jarduera erraza eta merkea dela ulertarazteko. Ildo horretan, bakoitzaren aurrerapenak kuantifikatzen dira, eta erronkak proposatzen zaizkie.

Gainera, proiektuak beste jarduera ludiko batzuk eskaintzen ditu, eta kudeaketak eskualdatzeko eta babes-produktuak mailegatzeko aukera ematen du, pertsona horiek autonomia sustatzeko eta eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko.

DATUAK:

- > Guztira **86 parte-hartzaile** izan dira., haietatik 52 gizonak eta 34 emakumeak. 271 akonpainamendu osasun-kontsultetara/ ospitale-bisitaldietara. **26 informazio-dei**. **3 kanpaina** (hotz-bolada, bero-bolada eta gripearen kanpaina).

Zahartze-prozesuan dauden pertsonentzako arreta

Proiektuak topaleku bat eskaintzen du, eta, bertan, adineko pertsonen prestakuntza-jarduerak, jarduera soziokulturalak eta aisia-jarduerak egiten dituzte. Era horretan, haien garapen pertsonala eta autoestimua sustatzen da, astialdia aberasten da, gizartean txertatzen laguntzen zaie, eta gaitasun fisikoak eta mentalak egoera onean izaten eta mendekotasun-egoerak atzeratzen laguntzen zaie.

DATUAK:

- > **Guztira 191** pertsona artatu ditugu, **76 gizon eta 115 emakume**. 33 talde-jarduera. 232 jarraipen individual.

MUTURREKO KALTEBERATASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN PROGRAMA

Oinarrizko premien arreta urgentea

Laguntza urgentea eskaintzen diegu gizarte-larrialdiko egoeran dauden pertsonen, hots kide guztiak langabezian dituzten, diru-sarrerarik ez duten eta pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familiei.

Larrialdietarako laguntzak eskaintzen ditugu. Zehazki,



elikagaiak eta oinarritzko premiei erantzuteko beste ondasun batzuk (arropa, etxeko higienarako produktuak eta haurren produktuak) ematen ditugu. Gainera, etxeko oinarritzko hornidurak (argia eta ura) ordaintzen laguntzen dugu, familien gastuak arintzeko.

Proiektuaren bidez, halaber, erabiltzaileak gizarterbitzuen, arreta pertsonalaren eta familiako kudeaketa ekonomikoaren inguruan informatzen eta orientatzen dira.

> POBREZIA ENERGETIKOA

- > 376 familia artatu ditugu fakturak ordaintzeko laguntza emanez.
- > % 70 emakumeak.
- > % 30 gizonak.
- > Etxean aurrezteko 8 tailer egin dira, proiektuaren 87 onuradunen (laguntza jaso duten pertsonen % 23) parte-hartzearekin.

> ARROPA ETA OINETAKOAK

- > 129 familia.
- > Guztira 486 pertsona artatu ditugu zeharka, 292 heldu eta 284 heldugabe.

> HAURRAK ELIKATZEKO KITAK

- > 194 haurrek jaso dituzte haurrak elikatzeke kitak.

> HELDUAK ELIKATZEKO KITAK

- > 264 familia artatu ditugu, eta guztira 897 pertsona artatu ditugu zeharka.

> ELIKADURA-TAILERRAK

- > Haurrentzako nutrizio-tailerra: 35 familiak parte hartu dute.
- > Elikadura orekatuko tailerra: 131 familiak parte hartu dute.

Elikadura Laguntzarako 2017ko Programa

Beharrik handieneko pertsonen elikagaiak banatzen dizkien programa nazional bat da. Beharrik Handieneko pertsonentzako Europako Laguntza Funtzak (FEAD) (2014-2020) finantzatzen du % 85ean, eta Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontuak % 15ean. Merkatuan eskuratutako elikagaiak erosi eta banaketa-erakundeen biltegitratze- eta banaketa-zentroetara bidaltzen dira.

Gurutze Gorrian, baimenduta dauden banaketa-erakunde elkartuen artean banatzen ditugu, beharrik handieneko pertsonen doan eman diezazkieten. Halaber, akonpainamendu-neurriak hartzen ditugu, eta gizarte-baliabiderik hurbilenei buruzko informazioa ematen diegu.

Guztira 14 erakunde parte hartu dute Arabako Bulego Probintzialaren bitartez (elikagaiak jasotzeko eta banatzeko zentroa).

2017ko Programak nobedade bat dakar. Amurrioko Gurutze Gorriko Toki Batzordea Banaketa Erakunde Elkartu gisa eratu da, eta banaketa-erakunde sozial gisa dihardu, Aiaraldeko 30 familiari baino gehiagori laguntza emanez.

DATUAK:

> 109.441,704 Banatutako kiloak:

- **Fase 1** : 29.243,312 kilo
- **Fase 2**: 38.782,384 kilo
- **Fase 3**: 41.416,008 kilo

> 2.087 onuradun batez beste:

- **Fase 1** : 2.187 pertsona; horietatik 1.120 emakumeak eta 1.067 gizonak.
- **Fase 2**: 2.072 pertsona; horietatik 998 emakumeak eta 1.074 gizonak.
- **Fase 3**: 2.002 pertsona; horietatik 1,017 emakumeak eta 985 gizonak.

Etxegabeen arreta integrala (EAI)

Gure helburu nagusia etxegabeen kalteak murriztea eta haien eguneroko arriskuak behar bezala kudeatzea da.

EAIak gizarte-laneko profesionalez, laguntza-teknikariez eta jarduera horretarako espezifikoki prestatutako boluntarioez osatutako taldeak dira.

Urte osoan, astelehen, astearte, asteazken eta ostiralero, pertsona horiek lo egiten duten ohiko lekuetara joaten dira.

Mikrouhin-labe bat, tapakiak, higiene pertsonalerako produktuak, salda eta ogitartekoak dituen ibilgailu batekin, pertsona ezagunengana eta arreta hori jaso ohi



du tenengana ez ezik, leku berri posibleetara ere joaten dira. Boluntarioen zeregina da hirian dauden baliabideen berri ematea ezagutzen ez dituzten pertsoneri, ogitarteko bat eta edari bero bat eskaintzea (kafea edo salda) eta tartetxo batez pertsona horiei entzutea. Bestalde, tapakia, barruko arropa, galtzerdiak edo higiene pertsonalerako produktuak ematen zaizkie behar dituztenei. Pertsona horien babesgabetasun-egoera arintzen eta jasangarriago egiten laguntzea da horren guztiaren helburua.

DATUAK:

- > Guztira **77 pertsona** artatu ditugu, 71 gizon eta 6 emakume. 232 irtenaldi 2017. urtean. Material-entregak: 75 manta, 63 higiene kit, 116 azpiko arropa, 170 galtzetin

Ongizate pertsonala eta aktibazio soziala

Programa honen helburua da egungo egoera ekonomikoak eraginpean gehien hartutako pertsonak beren bizitza soziala eta, horrekin batera, beren ongizatea berreskura dezatela, beren potentzial pertsonalaz eta gizartearen zati aktibo berriz ere izateko beren inguruneak ematen dizkien aukerez jabetu daitezen.

DATUAK:

- > Guztira **158 erabiltzaile** izan dira, erabiltzaile horietatik 38 gizonak eta 120 emakumeak. 337 tailer egin dira. 63 aisia-jarduera eta kultura-irtenaldi.

GIZARTE-ZAILTASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN PROGRAMA

Telelaguntza mugikorra genero-indarkeriaren biktimetzat

Zerbitzu hau telefono mugikorraren eta telekokapenaren (GSMa eta GPSa) erabileran oinarrituta dago. Babes-agindu bat duten biktimei berehalako eta urruneko arreta eskaintzen diegu arreta-zentrotik, eta erantzun bizkorra ziurtatzen dugu eguneko ordu guztietan urteko egun guztietan, dauden tokian daudela ere.

DATUAK:

- > **37 pertsona** guztira. Eta **229 esku-hartze** guztira.

Super-arte

"Super-arte" tailerraren bitartez, genero-indarkeriaren eta jarrera matxisten aurkako jarrera pertsonala bultzatu nahi izan dugu, egunerokoan axolagabekeria saihesteko gonbidapena eginez. Gure helburua izan da genero-indarkeriaren gainean sentsibilizatzea, jarrera aktiboa eragitea, mikromatxismoak detektatzeko gogoeta egitea eta trebatzea, eta horrelakoak detektatzeko tresnak ahalbidetzea.

Horretarako, arte dramatikoaren eta gorputz-adierazpenaren teknikak erabili ditugu lan egiteko. Lehenik eta behin, kultura desberdinetako emakumeek maitasuna, indarkeria, Nlaren kontzientzia eta errespetua nola ulertzen eta nola bizi duten aztertzeke, eta, bigarrenik, herritarrei oro har berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko hezkuntzarako tresna bat eskaintzeke.

DATUAK:

- > 23 urtetik 58 urtera bitarteko **8 emakumek** pate hartu dute guztira: Marokoko 3k, Ghanako 1ek eta Espainiako 4k.

PRESOEN PROGRAMA

Komunitatearen mesederako lanak

Espetxeratzea saihesteko neurri alternatibo bat da, heziketa-helburua du, eta, aldi berean, gizartearentzako erabilgarriztat eta probetxuzkotzat jotzen da, eta gizarte-erantzunkidetasuna lortzen da erakundeen eta komunitatearen artean.

Gurutze Gorriak urtero sinatzen du lankidetzat-hitzarmen bat Espetxeetako Idazkaritza Nagusiarekin. Hitzarmen horren ildotik, gizartearen mesederako lanak (GML) egiteko plaza asko eskaintzen ditugu hainbat gizarte-programatan (adineko pertsonak, immigranteak, haurrak, gazteak eta abar) eta administrazio- edo mantentze-lanetan.

Horri guztiari esker, herritarrak sensibiliza ditzakegu espetxeen bestelako neurri batzuk izatearen garrantziaren inguruan; izan ere, batetik, askatasuna kentzea dakarten zigorren eragin desozializatzaileak saihesten dira, eta, bestetik, kondenatuak, nolabait ere, gizartearen mesederako lanen bitartez konpon dezake gizarteari eragin dion kaltea.

DATUAK:

- > Guztira **29 pertsona** artatu ditugu, 13 gizon eta 16 emakume. Urteko jardunaldi kopurua: 2.286. **298 esku-hartze indibidual** guztira.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN PROGRAMA

Laguntza-produktuak

Gure eguneroko bizitzaren alderdi guztietan, egin behar ditugun zereginak errazago, erosoago, ahalegin txikiagoarekin eta eraginkortasun handiagoarekin egitea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen ditugu: lanean, astialdian, elikatzeko, mugitzeko eta abar. Haiei esker, naturak ezartzen dizkigun mugak gainditu edota ezaba ditzakegu.

Desgaitasuna duten pertsonen gainerakoek baino muga gehiago izan ohi dituzte. Haienentzat, laguntza-produktuak funtsezkoak dira eguneroko bizitza eta jarduteko eta mugitzeko askatasuna errazteko eta inguruneak irisgarritasun unibertsalari jarraikiz egokitzeko.

Gurutze Gorrian, hainbat produktu jartzen ditugu mugikortasun urritua duten adinekoen eta/edo desgaitasun-egoeran dauden pertsonen eskura. Produktu horiei esker, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen autonomia handiagoa dute, eta eguneroko bizitzako zailtasun asko gaindi ditzakete.

Hainbat laguntza-produktuen doako maileguko zerbitzu bat da. Hiru hilabeteko mailegua izaten da, eta berritzeko aukera ematen da. Produktuen artean, honako hauek ditugu: gurrpil-aulkiak, makuluak, bastoiak, taka-takak, bainuko aulkiak, ohe artikulatuak eta beste laguntza-altzari batzuk.

DATUAK:

- > **316 pertsona** guztira, 126 gizonezko eta 190 emakumezko. **355 esku-hartze** izan dira guztira.

Ibilgailu egokituen bidezko garraioa

Zerbitzu hau Gizarte Ongizateko Foru Institutuak eskaintzen du, eta Arabako lurralde osoa hartzen du barnean, hiriburua salbuetsita.

Mugikortasun-arazoengatik garraio bide publikorik erabili ezin duten pertsonen bizilekutik kanpo mugitzeko aukera ematen die (eguneroko jarduerak edota aldizkako kudeaketak egiteko). Zehazki, errehabilitazio-zentroetara, eguneko zentroetara eta abar joateko erabiltzen da. Halaber, noizbehinkako desplazamenduak egiten dira, medikuarengana joateko, aisia-jardueretarako eta abar.

DATUAK:

- > **18 ibilgailu erabili dira joan-etorrietarako.**
- > **624.900 km** egin dira.
- > **203 pertsona.**
- > **74.964 joan-etorri egin dira.**

2017. urtean, honako Eguneko Arretako Landa Zentro hauetan esku hartu zen:

- Artziniega (1998. urteaz geroztik)
- Alegría-Dulantzi, Amurrio, Iruña de Oca eta Salvatierra-Agurain (1999. urteaz geroztik)
- Zuia (2000. urteaz geroztik)
- Valdegovia (2002. urteaz geroztik)
- Valle de Arana (2003. urteaz geroztik)
- Ribera Baja (2004. urteaz geroztik)
- Zigoitia (2005. urteaz geroztik)
- Asparrena (2006. urteaz geroztik)
- Arraia- Maeztu (2008. urteaz geroztik)
- Ayala (2009. urteaz geroztik)
- Aramaio (2011. urteaz geroztik)
- Elvillar (2012. urteaz geroztik)
- Lagrán (2014. urteaz geroztik)



IMMIGRANTEEN PROGRAMA

Immigranteen harrera integrala

Programa hau immigranteen, asilo-eskatzailen eta nazioarteko babespean dauden eta kalteberatasun-egoeran dauden beste pertsona batzuekin esku hartzeko lehenengo etapa gisa planteatzen da.

Gure gizartean integratzeko lehenengo tresnak eskaintzen dira, hala nola informazioa, orientazioa, babesa eta lehenengo baliabideak. Dokumentuak erregularizatzeko egin behar duten ibilbide osoan laguntzen zaie, hala nola ekintza judizialekin hasteko eta doako justizia eskuratzeko errekurtsu administratiboa egiten edo dagokion Abokatuen Elkargora deribatzen.

Immigranteak beren premia juridikoetan orientatzeko lege-aholkularitzako doako zerbitzu bat eskaintzen dugu. Zerbitzu horrek, nolahi ere, Atzerritartasun Zuzenbidea eta Asilo Eskubidea ditu ardatz, eta familien berrelkartzean, Espainiako nazionalitatea eskuratzeko aukeran, araubide komunitarioaren aldaketan edo lan-kontratu berrien izapidetzean laguntzen du.

Jarduerak administrazio publikoekin eta inguruko erakundeekin koordinatuta egiten dira, eta lotutako arriskuak murrizteko eta berriei aurrea hartzeko konponbideak bilatzen dira. Era berean, gure ahaleginen zati bat iritzi publikoa sentsibilizatzerantz bideratzen dugu, **estereotipo eta aurreiritzien kontra borrokatzeko. Ildo horretan, hainbat balio bultzatzen ditugu, hala nola tolerantzia, elkarrekiko begirunea, diskriminaziorik eza eta kulturarteko bizikidetzak konstruktiboa, eta pertsona horien egoera bereziaren ondoriozko premiak azpimarratzen ditugu.**

DATUAK:

- > Guztira **1.143 pertsona** artatu ditugu, 592 gizon eta 551 emakume. Guztira **2.834** kontsulta eskaini dira, horietatik 1.466 emakumeentzat eta 1.368 gizonentzat

ERREFUXIATUEN PROGRAMA

Errefuxiatuen harrera eta integrazioa

Programaren helburua da etorkinak, asilo-eskatzailak eta kalteberatasun-egoeran egonik nazioarteko babesa duten beste hainbat pertsona gizarteratu eta laneratzea, eta haiei guztien eskura hezkuntza eta kultura jartzea, Gurutze Gorriak garatutako beste proiektu batzuen ildo beretik.

Oro har, nazioarteko babesaren eskatzaile eta/edo onuradun, aberrigabe, eta aldi baterako babes-erregumenaren eta babes subsidiarioko beste estatutu batzuen eraginpean dauden pertsonen harrera eta integrazioa sendotu eta lortu nahi da, autonomia maila nahikoa lor dezaten, bertako herritarren baldintza berberetan.

Esku-hartze osoak funtsezko bi bide dauzka jomugan:

- Estatuko Harrera Sareko kide izatea, sare hori osatzea eta hari laguntzea.
- Onuradunei ingurune berrian jarduten eta autonomia-maila nahikoa lortzen lagunduko dieten baliabide eta programak martxan jartzea.

DATUAK:

- > Aldi baterako harrerako **227 plaza**. Programaren bigarren fasean **123 pertsona** artatu ditugu, eta pertsona horietatik 58 adingabeak dira.





ENPLEGUA

Gurutze Gorriaren Enplegu Planean, pertsona kalteberek enplegua baldintza beretan lortzeko eta enpleguari eusteko lan egiten dugu

...

Krisi sozioekonomikoaren ondorioz, enplegua prekarizatu eta lan-baldintzak gogortu egin dira, eta horrek eragin berezia du gizarte-zailtasunak dituzten pertsonengan.

Gizarteratzea eta laneratzea hobetu nahi dugu ibilbide pertsonalizatu eta adostuen bidez, gaitasun pertsonalak hobetzeko, gaitasun horiek egungo lan-merkatuaren errealitatera egokitzeko eta merkatu horren barruan iraupena eta autonomia bermatzeko.

Hiru jardun-ildo ditugu:

- > **Orientazioa:** banakako eta taldeko orientazioa. Gainera, enplegarritasunaren bilakaera ikusteko jarraipen bat ezartzen dugu.
- > **Prestakuntza:** hainbat sektoretako ikastaroen bidezko prestakuntza, laneratze hobea bultzatzeko praktikak barne.
- > **Bitartekaritza:** bitartekaritza inguruneko enpresein, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea bultzatzeko.

Lan- eta gizarte-ingurune inklusibo bat lortu nahi dugu. Ingurune horretan, sexu, adin eta jatorriagatik enplegua lortzeko dauden oztopoak murriztuko dira, pertsona bakoitzaren trebetasunak sendotuko dira eta pertsonak enplegua bilatzeko ahaldunduko dira.

DATUAK:

- > Guztira 1.467 erabiltzaile izan dira (589 gizonak eta 878 emakumeak)

” **Proiektu guztiak kontuan hartuta, lortutako gizarteratzearen batezbestekoa % 43 izan da**

Proyectos

> ENPLEGUA LORTZEKO NEURRI ESPEZIFIKOAK

Enplegua Bilatzeko Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuak inguruan dauden zerbitzuei buruzko informazioa eta enplegua bilatzeko gune bat eskaintzen du. Gune horretan, teknologiak eskuragarri ditugu, eta enplegua bilatzeko aholkularitzaren eta tresnen inguruko saioak ematen ditugu astean behin.

DATUAK:

- > **672 pertsonari eman zaie laguntza;**
256 gizonetzkoak ziren, eta 416 emakumezkoak.

> 45 URTETIK GORAKOEN ENPLEGUA SUSTATZEA

Beharrezko lanbide-ibilbideak dituzten eta krisiaren ondorioz aspalditik lanik gabe dauden 45 urtetik gorako pertsonen enplegarritasuna sendotu dugu. Izan ere, adina eta eguneratu gabeko prestakuntza diskriminazio-elementuak dira beste enplegu bat lortzeko, eta egoerak areagotu egiten dira erretiroa hartzeko adinera hurbildu ahala.

DATUAK:

- > 100 pertsonari eman zaie laguntza;
40 gizonetzkoak ziren, eta 60 emakumezkoak.

> **LANERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO IBILBIDE INTEGRALAK**

Gure helburua gizarte-zailtasunak dituzten pertsonen lan-eremuan aukera-berdintasuna bultzatzea eta, horretarako, haien autonomia, kalifikazioa eta aukerak areagotzea da, enplegua lortzeko aukera gehiago izan ditzaten. Oztoporik handienak lan-eremuan (luzaroko langabezia, kalifikazio-gabezia, diru-sarrera urriak eta abar) dituzten langabeekin lan egiten dugu.

DATUAK:

> 100 pertsonari eman zaie laguntza;
40 gizonetzkoak ziren, eta 60 emakumezkoak.

> **ENPLEGURAKO ZUBIAK: BERDINTASUNAREN ALDEKO IBILBIDEAK**

Lan-merkatutik oso urrun dauden, diskriminazio anizkoitza jasaten duten edo arrisku handiko kolektiboetakoak diren (kalifikazio urria duten edo kalifikaziorik ez duten, lan-esperientziarik ez duten edo esperientzia urria duten edota enplegu prekarioak dituzten amaren ardurapeko familiak, genero-indarkeriaren biktimak, immigranteak, 45 urtetik gorakoak eta abar) emakumeen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzen dugu. Pertsona horietako askok lan-esperientzia dute, baina ez daude egungo eskakizunei erantzuteko bezain kalifikatuta. Pertsona horiek aitortu gabe dituzten lanbide-jarduerak normalizatu, ohiko lan-nitxoetatik irten eta sektore horien barruan okupazioa hobetu nahi dute, langile pobreak baitira.

DATUAK:

> 71 emakumeri eman zaie laguntza.

> **GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDE INTEGRALAK**

Lan-trebetasunik eta trebetasun pertsonalik ez duten edo galdu dituzten eta enplegua bilatzeko premia duten migratzaileekin lan egiten dugu.

DATUAK:

60 pertsonari eman zaie laguntza;
33 gizonetzkoak ziren, eta 27 emakumezkoak.

> **GAZTE-BERMEKO GAZTEENTZAKO AKTIBAZIO, ORIENTAZIO ETA AKONPAINAMENDU SOZIOLABORALA**

Okupaziorik ez duten eta hezkuntza- edo prestakuntza-sistemetan sartuta ez dauden gazteen aktibazioan dihardugu, lan-merkatuan edo prestakuntzan txerta daitezten.

DATUAK:

> 100 pertsonari eman zaie laguntza;
40 gizonetzkoak ziren, eta 60 emakumezkoak.

> **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA GAZTE-BERMEKO GAZTEEKIN**

Lan-merkatuan txertatu nahi duten eta kalifikatu behar duten gazte-bermeko gazteei zuzenduta dago.

Horretarako, honako hauek eskaintzen dizkiegu:

- Zeharkako eta oinarrizko gaitasunen tailerrak.
- Lanbide baten garapenaren hastapenei buruzko ikastaroak.
- Lanbide-trebakuntzarako ikastaroak.

DATUAK:

> 80 gazteri eman zaie laguntza; 32 gizonetzkoak ziren, eta 48 emakumezkoak.





> LAN EGINEZ IKASTEA (GAZTE-BERMEKO GAZTEENTZAT)

Merkataritza eta biltegiko lanbide-trebakuntzako bi ikastaro eman ditugu (lanaz kanpoko praktikekin), eta kalteberatasun-egoera larrian dauden, prestakuntza urria eta diru-sarrera txikiak dituzten edo kide guztiak langabezia dituzten familietakoak diren gazte-bermeko gazteei zuzenduta dago.

DATUAK:

> **40 gazteri eman zaie laguntza;** 16 gizonetzkoak ziren, eta 24 emakumezkoak.

> ENPRESEN GIZARTE-ERRONKA LANERATZEAREN ARLOAN: ALIANTZAK

Aliantzak egiten ditugu enpresekin, herritarrengan eta lan-merkatuko beste eragile batzuegan pertsonarik kalteberenen laneratzea eta aniztasuna (gizartea eta enpresak aberasteko balio gisa) sustatzeko eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ikuspegi estereotipatu eta aurreiritziz beteei aurre egiteko.

DATUAK:

2017. urtean, **146 enpresa laguntzaile izan genituen;** 58rekin enplegu-eskaintzak kudeatu ditugu, eta 80k ikasleak hartu dituzte praktiketean.

> GIZARTERATZEKO GUNEAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten eta beren egoera hobetzeko premia duten pertsonen zuzentzen gatazkie, betiere hobetze horri begira pertsona horiek oinarrizko trebetasun sozialak ez dituztela kontuan izanda. Horregatik guztiagatik, esku-hartze zabal eta integrala behar dute, hainbat alderdi indartuko dituen, hala nola autokontzeptua, balorizazio pertsonala, gizarteratzea ahalbidetzeko eta pertsona horien ahalduntzea sustatzen duten jardueretarako aldaketak gerta daitezten ahalbidetzeko trebetasun eta konpetentzia pertsonalak, eta, horrekin batera, erabakiak hartzeko duten gaitasuna indartzeko, beren komunikazio-trebetasunak indartzeko, eta abar.

Aldaketa horrek etengabeko akonpainamendua behar du gizartera hurbiltzen diren pertsonen gizarte horren zati direla senti dezaten, eta autonomoak izan daitezten. Gizarteratzeko premiak artatzeko guneak gizarteratze-ibilbide pertsonalizatu baten zati dira, zeinean pertsona bera den bere prozesuaren erantzule.

DATUAK:

144 pertsona artatu ditugu.
719 prestakuntza-ordurekin guztira.

2017AN GARAPEN PUNTUALA IZAN DUTEN BESTE PROIEKTU BATZUK

LUZAROKO LANGABEENTZAKO BIRKALIFIKAZIOA.
16 pertsona prestatu ziren oinarrizko merkataritza-eragiketetan.

ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO TAILERRAK.
Emakumeen bizi-kalitatea eta lan-merkatuan duten posizioa hobetzeko gaitasunak sendotzen dituen programa psikosozial bat da. 11 emakumek hartu zuten parte.

"EN REALIDAD NO TIENE GRACIA" ("EGIA ESAN, EZ DU BATERE GRAZIARIK") KANPAINA

"En realidad no tiene gracia" gizartea sentsibilizatzeko eta mobilizatzeko kanpaina bat da, gizartearen —eta, oso bereziki, enpresen— konpromisoa lortzeko helburua duena. Jendea sentsibilizatu nahi dugu lan-inguruneetan aniztasunak daukan garrantziaren inguruan, adina, jatorria edo sexua lan-merkatuan sartzeko oztopoa izan ez dadin.

Besteak beste, **zabalkunde-kanpaina bat egin dugu TUVISA SA autobusen bitartez, kanpainari buruzko materiala** (ohar-liburuxkak, txarteldegia, usb, kamisetak, etab.) eta informazioa **zabaldu** eta enpresen artean **banatu** dugu, webgunea eta sare sozialak kontsultatzeko gonbidapenez gainera. Webgunea: www.enrealidadnotienegracia.org





PRESTAKUNTZA

Kalitateko prestakuntza motibatzailerak, aktiboa, parte-hartzean oinarritua eta praktikoa.

...

”

“Gurutze Gorriak ikastaroak eta kalitateko prestakuntza eskaintzen ditu larrialden eta pertsonen arretan erreferentziatzeko erakunde gisa duen esperientzian oinarrituta”

22

Ikasteak nahi duguna eta behar duguna lortzea ahalbidetzen digu. Ideiak eta itxaropenak errealitate bihurtzea dakar. Gurutze Gorriarentzat, pertsonen, erakundeen, enpresen eta gizartearen ahalmenak indartzen eta areagotzen dituen tresna da prestakuntza. Horrek, pertsonen kasuan, aukeraberdintasuna sustatzea eta bizitzeko eta garatzeko aukerak gehitzea dakar. Erakundeen eta enpresen kasuan, berriz, prozesuak hobetzeko, beren giza baliabideak hobetzeko eta berritzeko atak irekitzen dituen barne-ikaskuntza bat da.

Printzipio horiei kalitatezko erantzuna ematen jarraitu ahal izateko, 2017an prestakuntza-zentro berri bat inauguratu dugu Gasteizen, Etxezarra kaleko 2.ean. Hala, Arabako Gurutze Gorriak ahalegin handia egin du, garrantzizko inbertso bat eginez prestakuntzaren alde egiten duen apustu sendoari ekiteko.

LANBIDEK EGIAZTATUTAKO PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK EMATEA

- a. **SSCB0209** - HAUR ETA GAZTEEN ASTIALDIRAKO HEZKUNTZA-JARDUEREN DINAMIZAZIOA.
- b. **SSCE0110** - ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZA.
- c. **SSCG0209** - KOMUNITATE BITARTEKEOTZA.
- d. **SSCS0108** - PERTSONENTZAKO ETXEKO ARRETA

SOZIOSANITARIOA.

- e. **SSCS0208** - MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA SOZIOSANITARIOA GIZARTE-ERAKUNDEETAN.

Nork ikasi behar du?

Eraldaketa handietako etapa batean gaude, eta, garai berri honetan, aldaketa bilakaera-ereduaren oinarritzko alderdi bereizgarria da. Horregatik, ikaskuntza askoz baliotsuagoa da pertsonak moldatzeko aukera izateko oinarritzko baliabide gisa. Horrek, erakunde eta enpresekin batera, gure egoera hobetzea eta gizarte inklusiboagoa sustatzen laguntzeko gure ekarpena egitea ahalbidetze digu. Horretarako, ingurunea, gizarte-eredua, gure lurraldeetako baldintza sozioekonomikoak eta haien ondorioz sortzen diren premiak hartu behar dira kontuan.

Gizarte-ikerketatik abiatuta eta berrikuntza-ikuspegi batekin, lurraldeko baldintzei eta testuinguruari, erakundeei eta, jakina, pertsonen erantzuteko Prestakuntza Plan bat eskaintzen dugu.

Nor prestatzen dugu Gurutze Gorrian?

Gure boluntarioak eta langileak (joan den urtean 73 ikastaro eman genituen), funtsezkoak baitira prozesuan eta emaitzetan, eraldaketa bultzatzen duen erakundea izanik.

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak, indartu daitezten eta beren egoerari bermekin aurre egiteko ahalmen handiagoa izan dezaten. Joan den urtean, parte-hartzearen, gizarteratzearen eta enpleguaren inguruko 374 ikastaro egin ziren.

Herritarrek, oro har, gaitasun berriak eskuratu, hobekuntza pertsonala bilatu edo enplegu-aukerak areagotu ditzaten. 2017. urtean, 1.920 pertsona prestatu genituen gizarte-eremuan, osasun-eremuan, gizarte-sustapenaren eremuan eta larrialdien eremuan, eta Lanbideren egiaztapena lortu genuen arlo soziosanitarioan, gizarte-erakundeetan.

Gazteak, Henry Dunant astialdiko Eskolaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak ofizialki aintzatesten du eskola hori, eta Lanbidek egiaztatu egin du, haur eta gazteen astialdi hezigarriko jarduerak zuzendu eta koordinatzeko eta jarduera horiek dinamizatzeko ziurtagiri profesionalak emateko.

Ikaskuntza-premiak dituzten, osatzen dituzten pertsonen lanbide-gaitasuna eta gizarte-balioa eman nahi dieten eta araudi berrietara egokitu nahi duten erakundeak eta enpresak.


Gurutze Gorriko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu gure erakundeetan konfiantza jarri duten erakunde eta enpresei, horri esker aurten 1.920 pertsona larrialdi-egoera baten aurrean erantzun hobea eta azkarragoa emateko moduan daudelako.

Azken batean, gizarte osoa. Izan ere, Gurutze Gorriak gizartea bidezkoagoa, ekitatiboagoa, solidarioagoa eta integratzaileagoa izan dadin lortzen lagundu nahi du, hobetuz eta haren balioak indartuz.


	IKASTAROAK	ORDUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	IKASLEAK
Esku hartzeko prestakuntza	46	484	202	228	430
Gizarteratzeko eta enplegurako prestak	374	6.271	1.630	2.159	3.789
Biztanleria oro har, eta enpresak	160	4.097	444	622	1.066
Erakunde-prestakuntza	27	148	111	223	334
GUZTIRA	607	11.000	2.912	3.561	6.473

23

EMANDAKO IKASTAROEN KOPURUAREN BILAKAERA



BERTARATUTAKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA





INGURUMEN-PLANA

Ingurumena zaintzea eta babestea pertsonen osasunaren eta bizi-kalitatearen alde lan egitea da. Horregatik, Gurutze Gorriak ingurumenaren defentsa sustatzen du informazio, sentsibilizazio eta hobekuntzako ekintzen bidez, pertsonarik kalteberenen egoera hobetzeko.

...

Egungo ingurumen-arazoak ezin dira aztertu eta ulertu ikuspegi orokor batetik abiatzen ez bagara. Arazo horiek elkarreragiten duten faktore askoren ondorioz sortzen dira. Gizakiak industrializaziotik globalizaziora arte eragin duen inpaktuaren ondorioz, gure planetak krisi orokor larria bizi du gaur egun.

Pertsona guztiok arduratu behar dugu gizarte- eta ingurumen-desorekei aurre egiteko konponbide bideragarriak aurkitzeaz. Horretarako, jokabide arduratsuagoa agertu behar da, gure premiak betetzean ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena eragiteko.

1973. urtean, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak adierazi zuen ingurumenaren narriadura eta eraldaketa munduko arazorik handienetako bat zela. Horren ondorioz, ingurune naturalaren kontserbazioa eta hobekuntza lehentasunezko helburu bihurtu da, oso lotuta baitago gizakien bizi-kalitate hobearekin.

Hori guztia dela-eta, Gurutze Gorriak ingurumenaren defentsa sustatzen du informazio, sentsibilizazio eta hobekuntzako ekintzen bidez, pertsonarik kalteberenen egoera hobetzeko eta ingurunean eta, beraz, pertsonen bizitzan inpaktu positiboa sortzeko.

Uraren Munduko Eguna:

Ura funtsezko baliabidea da bizitzarako. Gainera, aitortutako giza eskubide bat da, eta milioika pertsonak oraindik ez dute ura lortzeko aukerarik. Horrek, jakina, pertsona horien garapena, bizi-kalitatea, bizi-itzaropena

eta abar baldintzatzen eta mugatzen du.

Egun horretan, uraren eta enpleguaren arteko loturaren inguruko kontzientziazioa sustatzen dugu. Izan ere, urak funtsezko garrantzia dauka, enpleguaren inguruko sektoreekin lotuta baitago (osasuna, ekosistemak, urbanizazioa eta hiriak, industria, energia, elikadura, genero-berdintasuna eta genero-ikuspegia eta abar).

Jarduerak Gasteiz, Laudio eta Amurrioko Tokiko Batzarretan egin dira, eta herritarrei –oro har– eta haurrei –bereziki– zuzenduta egin dira.

Ingurumenaren Munduko Eguna

Gure ingurune naturalek (basoek, parkeek, hondartzek eta abar) jasaten duten kutsadura dela-eta, ekosistemak atzera egiten ari dira nabarmen. Eremu naturaletan pilatzen den zaborra ez da arazo estetiko soil. Aitzitik, inpaktu sozioekonomiko handia eragiteaz gain, mehatxuan jartzen du gizakien osasuna eta segurtasuna, eta ondorio negatiboak ditu organismoetan eta habitatetan.

Gurutze Gorriak komunitateek ingurumenari lotutako gaietan jarrera aldatzeko betetzen duen funtsezko zeregina sustatzen du, eta lankidetzaz bultzatzen du, ingurumena jasangarria izan dadin.

Hainbat sentsibilizazio-jarduera egin ditugu Laudio, Amurrio eta Gasteizko Tokiko Batzarretan, eta honako kolektibo hauek hartu dute parte:



- Ikasleak
- Gizarte- eta enplegu-proiektuen erabiltzaileak
- Gazteen Gurutze Gorrian parte hartu duten haurrak
- Gurutze Gorriaren hainbat proiektutako boluntarioak

Ingurumen-kalitatea

Gurutze Gorriak Arabako jardueren ingurumen-alderdiak aztertu ditu (azpiegitura eta proiektu enblematikoetan bereziki oinarrituta), eta inpakturik esanguratsuenak identifikatu ditu kontsumoen jarraipenaren bidez.

Arazo horiek agerian uzteko eta inplikaturako pertsonak kontzientziatzeko, barneko Sentsibilizazio Plan bat egin dugu.

Azkenik, klausula jasangarriak sartu ditugu erosketa-prozesuan, produktu eta/edo zerbitzuen erosketaren ondoriozko inpaktuak murrizteko. Halaber, hondakin sanitarioen kudeaketa hobetu dugu, eta hondakin horiek behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren baliabideak

eta prestakuntza eman dizkiegu proiektuan esku hartu duten pertsona guztiei.

Azpimarratu beharra dago, halaber, Gasteizko Udalaren Ingurumeneko "Elkargunean" aktiboki parte hartzen jarraitu dugula. Organo hori herritarrek arlo horretan izan behar duten parte-hartzea dinamizatu eta bideratzeko aurreikusita dago.

Esanguratsua da, halaber, "Itun Berdearen Komunitateko" kide gisa izan dugun parte hartzea. Komunitate hori Gasteizko Udalak zuzentzen du, eta jasangarritasunarekin sentsibilizatuta dauden, ingurumenarekin konpromisoa hartu duten eta ingurumena hobetzen laguntzeko asmoa duten hainbat enpresa eta erakunde biltzen ditu.

Horri guztiari Prebentzio Zerbitzuen eta Garraio Sanitarioaren Proiektua Ziurtatzeko lana erantsi behar zaio, "ingurumen-kalitateko" programaren barruan egindakoa Agur eta Sorospenetarako Arloarekin elkarlanean eta UNE ISO 9001-2015 Arauari jarraikiz.



GAZTEEN GURUTZE GORRIA

Gazteak: oraina etorkizuna eraikitzen

...

Gazteen Gurutze Gorria Gurutze Gorriaren gazte-atala da, zortzi urtetik hogeita hamar urtera bitarteko haur eta gazteek osatua. Forma juridiko propiorik ez badu ere, Gazteen Gurutze Gorria Gazte Elkarte bat da, bere konpromiso soziala garatzen duena eraldaketa jomugan duen ekintza baten bitartez, Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren Funtsezko Printzipioei jarraikiz: Gizatasuna, Inpartzialtasuna, Neutraltasuna, Independentzia, Boluntariotza, Batasuna eta Unibertsaltasuna.

26

Mundua aldatzea

Horixe da boluntarioen helburua, egunero-egunero beren borondatezko ekintzarekin bete nahi dutena. Gure ingurunea aldatzea gizarte bidezkoago eta begirunetsuago bat lortzeko, non pertsona gisa dugun bizi-proiektua ongi


garatzeko aukera izango dugun. Nola? Balioetan, ohitura osasungarrien jabeakuntzan eta pertsonen erabateko integrazio-prozesuan oinarritutako hezkuntzaren eta haren transmisioaren bitartez.

Nola egiten dugu?

Gure filosofia honako honetan oinarritzen da:

- Errealitatearen azterketa Ikerketa errealitate guztiak ezagutzeko funtsezko tresna dela aintzat hartuz .
- Boluntarioen eta parte-hartzearen sustapena.
- Sentsibilizaziorako eta prebentziorako hezkuntza
- Osasuna zentzu zabalean –fisikoa, soziala, psikologikoa, ingurumenekoa, eta abar– sustatu nahi dugula garbi edukiz.
- Esku hartzea. Haurrak eta gazteak protagonistak diren jarduerak eginez.

PARTE HARTZAILEAK



Gazteen Gurutze Gorriko 76 boluntarioen ekintzari esker 10.179 esku-hartze egina izan dira, 7.856 pertsonarengana iritsita.

- Prestakuntza. Eraginkortasunez ekiteko behar diren tresnak eskainiz.
- Sare-lana. Gizartearen parte hartzerako foro eta guneeetan parte hartuz.
- Lurralde-garapena. Erakundeak lurralde-eremu guztietan dauzkan baliabideak eskuratzeko aukera emanez.

Gainera, Gazteen Gurutze Gorrian honako hauen aldeko apustua egiten dugu:

- Parte-hartzea.
- Gogoeta klritikoa.
- Malgutasuna.
- Ikaskuntza inductibo-konstruktiboa.
- Praktika, motibazioa eta dibertsioa.

ESKU-HARTZEA _____

Ospitaleratutako haurren arreta eta CiberCaixa

Harreman pertsonalen eta jolasen bidez, ospitaleratuta egoteak adingabeengan eta haien familiengan duen eragina arintzen dugu. 2017. urtean, Gasteizko Txagorritxu ospitaleko pediatria-atalean egin dira jarduerak.

DATUAK:

> 274 jarduera egin dira.

Eskola-arrakastaren sustapena

Eragin positiboa du haurren eskola-prozesuan, haiekin arlo pertsonaleko eta haien ingurune faktoreetan lan egiten baitugu, beren eskola-errendimendua eta eskola-arrakasta hobetzen laguntzeko. 2017. urtean, bi lekutan egin dira: Laudion eta Gasteizen.

DATUAK:

- > 2017an hiru herritan egin dira: Laudion eta Gasteizen, guztira:
 - > 162 parte-hartzaile izan dira.
 - > Eskola-laguntzako 3.679 esku-hartze egin dira.
 - > 2731 merienda.
 - > 675 aisialdi-jarduera.

Jostailu hezigarria

Gizarte-zailtasunak dituzten haurren eta gazteen bizi-kalitatea hobetzen du, eta garapen pertsonalerako trebetasunak sustatzen ditu jolasaren bitartez.

DATUAK:

- > 7 sentsibilizazio-ekintza, 451 pertsonarentzat. Hezkuntzako 533 jostailu lote banatu dira.





SENTSIBILIZAZIOA

Gazteen Gurutze Gorriak, bere hezkuntza-arloko esku-hartzeen bidez, gizartea eta pertsonak eraldatu nahi ditu ikaskuntza-prozesuak sustatuz, hala maila indibidualean nola kolektiboan.

Horregatik, erakundearen funtsezko zutabeetako bat hainbat arloren inguruko sentsibilizazioa eta informazioa da.

Arabako Gazteen Gurutze Gorriarentzat, arlo nagusia **genero-ikuspegia eta baterako hezkuntza da. Ildo horretan, genero-indarkeriaren prebentzioan eta sentsibilizazio eta baterako hezkuntza ez-sexistan lan egiten du.**

DATUAK:

Genero-indarkeria: 87 jarduera Arabako Lurralde Historikoaren hoguei ikastetxe baino gehiagoan, eta guztira 2217 gazterentzat.

28

Sentsibilizazioa eta baterako hezkuntza ez-sexista: 445 pertsonarekin esku hartu dugu.

DATUAK:

2017. urtean, informazio eta sentsibilizatorako 41 ekintza gehiago egin ziren, 2337 pertsona honako hauen inguruan sentsibilizatzeko:

- GIB/HIESaren alorreko hezkuntza eta prebentzioa.
- Aniztasuna.
- Kulturartekotasuna.
- Giza eskubideak.

PARTE-HARTZEA

PINEO

Aisia eta astialdiaren bitartez haur eta gazteei parte hartzeko gune bat eskaintzeko aukera ematen digu.

DATUAK:

2017an 10 monitoreko talde bat eduki dugu, 8 urtetik 14 urtera bitarteko 62 parte-hartzaileekin lanean.

Guztira 747 esku-hartze burutu ziren Gurutze Gorriaren programen edukiak garatzeko, hala nola osasunerako sustapena eta hezkuntza, genero-ikuspegia eta baterako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza eta iraunkortasuna, garapenerako hezkuntza eta nazioarteko lankidetzak, eta gizarteratzea eta gizartean esku hartzea. Hainbat hezkuntza-estrategiaren bitartez, hala nola jolasa, animazioa, kirol-jarduerak, tailerrak, hitzaldiak, irtenaldiak eta txangoak.

Aisia eta astialdia

Balioak eta gizarte-kontzientzia helarazteko jarduera ludiko eta hezigarriak egin dira Gasteizen eta Amurrian.

Gasteizen, Udalekuak egin ziren uztaileko hamabost egunetan. Egun horietan, 32 hurrek hainbat jolas-jarduerarekin gozatu zuten, eta gai ugari jorratu zituzten, hala nola ingurumena eta baterako hezkuntza.



Amurrioko Batzarrak aisia eta astialdiko jarduerak antolatzen ditu bertako udal-igerilekuetara haurrekin joaten diren pertsonentzat. Bestalde, Gazteen Gurutze Gorriak Gabonetan **Amurrioko Udaletxean antolatzen** den Gabonetako Haur Parkean parte hartzen du.

Boluntario gazteen sustapena eta parte-hartzea erakundeetan

Boluntario guztien inplikazioa dinamizatu eta sustatzeko jarduerak eta topaketak antolatzen dituzte eta haietan parte hartzen dute, parte-hartzearen bidez bakearen, berdintasunaren eta errespetuaren kultura eskuratzen eta sustatzen baitute:

- Trebatuz topaketa.
- Actúa topaketa.
- Udako eskola.
- Ekin topaketa.

Bestalde, talde-lan baterako beste erakunde batzuekin antolatutako sare eta foroetan parte hartzen dute:

- Astialdiforoa.
- Ariznabarra-Zabalgana sare soziokomunitarioa.
- Gasteizko Udaleko Elkargunea.

DATUAK:

9 boluntario.

PRESTAKUNTZA

Gazteen Gurutze Gorriak kalitateko esku-hartzea bultzatzen du, eta, horregatik, garrantzi berezia ematen dio egunero jarduerak programatzen, egikaritzen eta ebaluatzen dituzten boluntarioen prestakuntzari.

Astialdiko Eskolaren helburua gazteen sektorea sustatzea da. Horretarako, gazteei gizarte- eta hezkuntza-proiektuetan eta astialdiko animazio-proiektuetan aktiboki eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen dieten jakintzak eta trebetasunak ematen zaizkie, eta esperientziak trukatzeko gune bat sortu da.

PROIEKTUAK	Boluntarioak, gizonetzkoak	Boluntarioak, emakumezkoak	Parte hartzaileak
Indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa	3	11	2217
Baterako hezkuntza eta hezkuntza ez-sexista		6	445
GIB/HIESaren alorreko hezkuntza eta prebentzioa	1		162
Ospitaleratutako haurren arreta	3	10	594
Hezteko jostailuak	3	13	984
Haurren eskola-arrakastaren sustapena	6	34	162
Cibercaixak	2	9	591
Aisia eta astialdia	7	15	623
Gazte boluntarioen sustapena eta parte-hartzea erakundeetan	3	6	
PINEO	5	4	54
Kulturartekotasuna			316
Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza			775
Aniztasuna, gure aukerarik onena			1084



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

*Ekintzak babesten ditugu eraldaketa-izaera batekin eta
hurbiltasun-ikuspegi batekin.*

...

GIZA GARAPENERAKO ETA SENTSIBILIZAZIORAKO HEZKUNTZA

Guretzat, Garapenerako Hezkuntza **balio humanitarioak**, Giza Eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa transmititzeko mekanismo bat da, eta kulturartekotasunaren, ekitatearen, justiziaren, bakearen, genero-berdintasunaren eta ingurumen-kontzientziaren aldeko jarrerak sustatzen ditu.

Nolanahi ere, pertsonak gizateria zuzen, bidezko eta solidarioago baten sorkuntzaren inguruko konpromisoa, errespetua eta erantzunkidetasuna bilatzen dugu.

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

Errefuxiatuen Nazioarteko eguna ospatzeko, 2017ko ekainaren 20an argazki-erakusketa jarri genuen Arabako Gurutze Gorriaren Prestakuntza Zentroan, Gasteizko Etxezarra kalean.

Pertsona kaltebera horiei laguntzeko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina bat da. Erakusgai jarritako argazkien bitartez islatu nahi da mila pertsonak, egunero, gehien pisatzen duen maleta egin behar dutela. Gurutze Gorriak lagundu egiten die, igarotzen diren herrialdeetan laguntza humanitaria emanaz eta helmugako herrialdeetan integrazioa erraztuz.

Amurrioko eta Laudioko Elkartasunaren Azoka

Maiatzaren 19an parte hartu genuen herritarrei garapenerako lankidetzaz zer den ezagutzera emateko Amurrioko Udalak antolatzen duen Elkartasun Azokaren XVI. edizioan.

Urriaren 24an Laudioko Elkartasunaren Azokaren XI. edizioan parte hartu genuen, eremuko beste elkarte batzuekin batera

LAGUNTZA HUMANITARIOA ETA LARRIALDIAK

Gurutze Gorrian, giza garapenaren ikuspegitik abiatuta pertsonen eta haien talde eta komunitateei beren premien eta interesen arabera bete-betean bizitzeko aukera emango dieten eta haien gaitasunak eta autonomia sustatuko dituzten erantzun integraletan sinesten dugu. Humanitatearen printzipioa da Gurutze Gorriak Giza Eskubideekin duen konpromisoaren adierazpena, eta konpromiso hori eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak defendatzeko ekintzetan islatzen da gaur egun.

Hondamendien eta gatazka armatuen biktimei laguntza humanitaria eta bitartekaritza eskaintzea da gure helburuetako bat, eta pertsonarik kalteberenen premiei, gure ahalmenei eta erakundetik espero denari erantzuten diegu.



PROIEKTUAK

<p>Angolako Gurutze Gorriaren erantzuna Cuneneko Probintziaren elikadura-krisiaren aurrean.</p>	<p>Nazioarteko Lankidetzeta Funtza</p>
<p>Markala eta Niono osasun-barrutietan bizi diren neska eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak babestea.</p>	<p>Nazioarteko Lankidetzeta Funtza</p>
<p>Tillaberi (Niger) barrutian malariaren aurka borrokatzeko jarduerak indartzea, sentsibilizazio-, informazio- eta prebentzio-jardueren bitartez.</p>	<p>Arabako Foru Aldundia</p>
<p>Bandundu Ville-ko familien erresilientzia hobetu da, haien bizi-baliabideak eta nutrizioa indartuz eta bertako emakumeak ahaldunduz.</p>	<p>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia</p>



BOLUNTARIOTZA

Gurutze Gorriaren indarra boluntarioengan dago.

...

Gurutze Gorria boluntarioz osatutako erakunde bat da. Boluntarioak askatasun osoz hartutako konpromiso baten adierazpen goren dira, eta konpromiso hori Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Mugimenduaren idealen errespetuan eta defentsan islatzen da.

Boluntarioak dira Gurutze Gorriaren eragile nagusiak. Gurutze Gorriaren printzipio eta balioak transmititzen dituzte, eta gizarte-eraldaketarako eragile gisa jarduteko antolamendu-gaitasunak sendotzen dituzte. Oinarrizko eskubideen alde dihardute, eta gizarte-zailtasuneko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza sustatzen dute.

Boluntarioei esker lortzen dugu jarduerak eta proiektuak aurrera eramatea eta, horren ondorioz, pertsonen bizitza hobetzea (kalteberatasun-egoeran dauden pertsonena bereziki).

2017an Boluntarioen urteko topaketa egin da Gasteizen. Ekitaldi hori une berezia da gure erakundearentzat, beren ibilbideagatik aipamen berezia merezi duten pertsonen lana jendaurrean aitortzeko eta pertsona horiei esker bereziak emateko aukera eskaintzen digun neurrian.


Enpatia
Ekitatea
Konpromisoa
Ilusioa
Justizia
Altruismoa
Inplikazioa
Parte-hartzea

Gogoia
Txera
Errespetua
Berdintasuna
Ekimena
Elkartasuna
Inklusioa

Alaitasuna

32


Pertsona askorentzat boluntariotzari esker beste zentzu bat hartzen duen  bizitza adierazten du.

Pertsona horiek paregabe egiten dituen eskuzabaltasunaren  alioa islatzen du.


Aurrera jarraitzeko motibazioa beti aurkitzen duenaren  orondatearen sinboloa da.

Pertsonen hutsaren truk laguntzeko  okazioaren sinboloa da.

ARABAKO BOLUNTARIOAK




BOLUNTARIOEN PROFILA





JARDUERA-ARLOAK		%
GIZARTE ESKU-HARTZEA	356	38%
SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK	271	29%
GAZTEAK	131	14%
BOLUNTARIOTZA ETA PARTE-HARTZEA	66	7%
Gainerakoak	112	12%
Guztira	936	100%



29%



Sorospenak eta larrialdiak

38%



Gizarte esku-hartzea

14%



Gazteen Gurutze Gorria

7%



Boluntariotza eta parte-hartzea


12%




Gainerakoak

BOLUNTARIOEN BILAKAERA


GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
828	449	379
765	398	367
765	379	386
836	410	426
792	426	366
936	412	524



2017KO LANTALDEA



LANTALDEKO PERTSONEN GUZTIZKO KOPURUA
2017AN, PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO





TOKIKO GARAPENA

Erakundea sendotzea, pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko.

...

Gurutze Gorrian badakigu zer garrantzitsua den hurbiltasunean, akonpainamenduan eta Gurutze Gorriak zein hiriko sare sozialek dituzten baliabideak hurbiltzeko kezkan oinarritutako harrera egitea. Horregatik, Pertsonentzako Arreta Esparruaren metodologia aplikatzen dugu Gasteizko Tokiko Batzarrean, helburu garbi batekin: pertsonak planteatzen dituen zailtasunei erantzutea.


Harreran hartutako pertsonak

DATUAK:

> **3.252 pertsonari eman zaie laguntza:** 1.787 emakumezkoak ziren, eta 1.465 gizonetzkoak.

36

- > **Harrera egiten dugu:** lehen kontaktua Gurutze Gorriarekin, "entzun".
- > **Ezagutzen dugu:** nolabait ere pertsonaren kalteberatasun-egoera berezia dakarten inguruabarrak identifikatzen ditugu.
- > **Balioesten dugu:** informazioa aztertu eta premiak identifikatzen ditugu.
- > **Pertsonaren eskari eta premiei erantzuten diegu:** proiektuen bitartez, pertsonaren premiei erantzuten diegu, bere esku-hartzearen partaide izan dadin.
- > **Jasotzen ari den jardueraren bidezko jarraipena egiten dugu,** aldizka harremanetan jartzen gara eta kexak eta iradokizunak aztertzen ditugu.
- > **Datuen gardentasuna eta fidagarritasuna zaintzen dugu,** eta dokumentazioa behar bezala kudeatzen dugu.
- > **Pertsonaren pertzepzioa eta haren aurreikuspenek jaso dituzten** erantzunak identifikatzen ditugu gogobetetze-mailaren bidez.



3.252

Harreran hartutako pertsonak,
guztira

%45

Gizonak



%55

Emakumeak




Gurutze Gorriaren Gasteizko Tokiko Batzarrean erantzuna jaso duten eskariak

Jasotako eskari guztien artean (3.268), 2.516k erantzuna izan dute Arabako Gurutze Gorriaren proiektu eta programen bitartez. Hortaz, eskarien % 77ri hemen etxe barruan erantzun ahal izan zaie.

”

“Ekintza horiek guztiak boluntarioei esker lortu dira. Izan ere, gure erakundearen oinarritzko zutabea dira, planteatutako eskariei lehen erantzuna ematen dietenak”.



3.268

Erantzuna izan duten eskariak, guztira

%23

Beste batzuk

%77

Arabako Gurutze Gorrian erantzundakoak

ARABAKO GURUTZE GORRIKO TOKI-SAREAREN GAITASUNAK INDARTZEKO PROZESUA

Hurbiltasun-metodologia indartzeko bigarren lan-faseari hasiera eman zaio aldi honetan, Gurutze Gorriaren eginkizuna bete dadila lortzeko funtsezkoa den heinean.

Ezarpenerako abiapuntuko premisak honako hauek dira:

- > Toki Hurbiltasuneko metodologia ezartzeko, toki-eremuetako jardura eta baliabideak kudeatzeko azterketa globala egin behar da, lurralde-eremuan aplikazioak, baliabideak eta prozedurak konfiguratu eta/edo eguneratu.
- > Erakundeko arlo guztien koordinazioa eta laguntza eskatzen du.
- > Toki Erantzunaren tresna berriak zeregin nagusi bat izango du toki-mailako jardueren zuzeneko kudeaketan, eta, horri esker, kudeaketa prozesu bizkorragoa eta eraginkorragoa izango da.

Toki Hurbiltasuna ezartzearen ondorio positiboak:

- > Gure esku-hartzearen norainokoa zabaltzeko aukera ematen du, profil berrietara iritsiz Toki Batzordeak — inguruneko premiak eta gaitasunak oinarritzat hartuz— egin beharreko ekintza errazen bitartez.
- > Baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera ematen du, baliabideen kudeaketa partekatutako lurralde-eredu bat definituz.
- > Lurralde Presentziako gure Eredu berrira egokitutako jarduerak eskaintzea ahalbidetzen du.
- > Bizkorrago erantzuteko aukera ematen du.
- > Boluntarioei zeregin proaktiboa ematen die, erabiltzaileekin (premiak identifikatzen ditu, erantzunak hautatu eta egikaritzen ditu), eta ingurunearekin (baliabideak identifikatzen dira, aliantzak ezartzen dira eta sare-lana sortzen da).



Esperientzia horrekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

- > **Gure esku-hartzearen norainokoa zabaltzea**, lehenago gure esku ez zeuden profiletara iritsiz.
- > **Baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzea**, probintzia-eremuetako baliabide guztiak partekatzea errazten duelako.
- > Lurralde Presentziako gure Eredu berrira **egokitutako jarduera** eskaintzea.
- > **Bizkorrago erantzutea.**
- > **Boluntarioei zeregin proaktiboa** ematen die, erabiltzaileekin (*premiak identifikatzen ditu, erantzunak hautatu eta egikaritzen ditu*), eta ingurunearekin (*gizarte-agenteen parte-hartzea sustatzen du, pertsona kalteberenentzako laguntzak sortuz*).

38

Hedapena ziurtatzeko egindako zereginak:

Aldi honetan honako jarduera hauek egin dira lan-metodologia honen hedapena errazteko:

1. Metodologia, haren tresnak eta ezarpen-plana Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde Autonomikoari aurkeztea, hori guztia 2015-2019 aldirako onartutako Ekintza Planaren esparruan.
2. Metodologia horren ezarpena errazteko Batzorde bat sortzea, honako eginkizun espezifiko hauekin:
 - > Toki Batzordeekin batera, ezarpenerako behar diren alde zurreko baldintzak ziurtatzea.
 - > Arloz arloko ezarpenaren erantzukizuna onartzea.
 - > Jarraipen eta inplikaziorako behar diren koordinazio-kanalak ezartzea
3. 2017. urterako lehentasun eta helburuak ezartzea.

Helburuei dagokienez, 2017ko abenduaren 31 baino lehen metodologia hau Toki Batzordeen % 25ean ezarrita egotea lortu nahi da.

Helburu hori lortzeko lehentasunezko zereginak honako hauek izango dira:

- > Baliabide Materialen eta Giza Baliabideen antolamendua.
- > Ezarpenerako behar diren alde zurreko baldintza teknikoaren berrikuspen orokorra.
- > Hurbiltasun-metodologia eta toki-erantzunaren tresna ezartzea.

4. Probintzia- eta toki-taldeentzako prestakuntza-jardunaldia, honako eduki hauekin:

- > Toki Hurbiltasunaren kontzeptura hurbiltzea; Gurutze Gorriaren ekintzan Toki Hurbiltasunaren kontzeptua eta haren bilakaera berrikustea.
- > Toki Hurbiltasunaren eta Toki Erantzunaren ezarpenaren norainokoa aurkeztea; Araban Toki Hurbiltasunaren eta Toki Erantzunaren zabalkundearen xede izango diren proiektuak (Arabako Toki Batzordean garatutako proiektu eta jarduerak) ezagutzera ematea.
- > Toki Erantzunaren tresna aurkeztea; Gurutze Gorriaren Esku-hartzean Toki Erantzunaren tresna erabili beharri buruzko prestakuntza-ekintza egitea.

5. Toki Batzordeen euskarri izateko prozesua, honako helburu hauekin:

- > Toki Batzordeei proiektu guztietan Toki Hurbiltasunarekin ohitzeko aukera ematea.
- > Toki Hurbiltasunaren tresnari lotutako aplikazioen erabileran izan daitezkeen gorabeherak identifikatzea.
- > Toki Erantzunaren tresnaren erabileran izan daitezkeen gorabeherak identifikatzea.
- > Toki Batzordeetan Toki Hurbiltasuna ezartzeko funtsezko alderdiak zehaztea.



Gualea
BAZARA HARTU
Las Gorria
Lantzen Gu
Gorria
de Gu
Gorria
de Gu

ra
ueba.
[Ribbon symbol]



BALIABIDEAK

Jarduerarako ekipamendu materialak.

....

BALIABIDE MATERIALAK, 2017

Oinarrizko Bizi Euskarria duten anbulantziak	7
Bizi Euskarri Aurreratua duten anbulantziak	1
Aterpeetarako LBEETaren atoaia	1
Gizarte Larrialdietako Unitatearen ibilgailua	1
Hurbileko ibilgailua	1
Mendiko taldeen lur orotako ibilgailuak	2
Aterpeetarako LBEETaren lur orotako ibilgailua	1
C mailako itsasontzia (barnealdeko urak)	1
Babes-ibilgailuak	2
Bizikletak	8
Garraio Egokituko Ibilgailuak	16
GUZTIRA	41



KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Une bakoitzean sentitzen duguna, garena eta bizitzen ari garena komunikatzen dugu

...

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek gizartearen alderdi emozionalak lantzen ditugulako alderdi ukiezinak neurri handiagoan maneiatzen baditugu ere, komunikazio-estrategia integraletan inbertitu behar dugu (helburuak zehaztearekin hasi eta emaitzak aurkezteraino), pertsona eta erakunde elkartuei eta herritar guztiei **gure ekintzak argi eta garbi eta gardentasun osoz ezagutzera emateko.**

Komunikazio-estrategia integraletan inbertitzen dugu: babesleak bilatzen ditugu, administrazio publikoen diru-laguntzak kudeatzen ditugu, informazioa filtratu eta sail guttien artean birbanatzen dugu, garatutako jardueren edukiak sortzen ditugu...

Kanpoko komunikazioari dagokionez, komunikazio-ekintzak ohiko komunikabideetan oinarritzen dira (eta, normalean, garestiagoak izan ohi dira). Nolanahi ere, teknologiak ez ditugu baztertzen, eta interneten inplikatzeko gara, sare sozialen bidez pertsonengana neurri handiagoan hurbildu ahal izan gaitzen.



www.facebook.com/CruzRojaAlava



@CruzRojaAlava

DATUAK:

- > 258 agerraldi prentsan
- > 29 agerraldi irratian
- > 23 telebistan
- > 35 elkarriketa
- > 51 prentsa-ohar
- > 5 kanpaina

Facebook:

- > 1.383 jarraitzaile
- > 205.796 bistaratze
- > 307 mezu

Twitter

- > 3109 jarraitzaile
- > 3018 mezu
- > 1.128.200 inpresio

Instagram

- > 505 jarraitzaile
- > 90 argitalpen
- > 3.812 atsegin dut

Youtube

- > 44 jarraitzaile
- > 37 bideo
- > 3.038 bistaratze

Google My business

- > 12 argitalpen



FUNTS-BILKETA

Elkartasuna zabaltzen laguntzen duten 10.494 bazkide Araban

....

Gutxienez duela 150 urtez geroztik, milioika pertsonak eraman dute eta daramate Gurutze Gorriaren bereizgarria beren nortasun-ezaugarri gisa, eta kezka hori ekintza bihurtu dute, hau da, Erakundearekin lankidetzan aritu dira lan-funtsak biltzeko jardueraren batean.

Funts-bilketa gero eta garrantzitsuagoa da Erakundearentzat; izan ere, funtsik gabe ezin izango litzateke behar bezala babestu boluntarioen ahalegin eskuzabala, eta ezin izango lirateke gauzatu egoerarik kalteberenean dauden pertsonen erantzuteko epe ertain eta luzerako proiektuak.

Gainera, komunikazioa hobetzen saiatu gara, gure eguneroko lanaren alderdi erabakigarria baita. Horretarako, bazkideen eta egiten diren proiektuen arteko loturaren inguruko mezuak helarazi dira.

Arabako Gurutze Gorriaren diru-sarreraren % 46 baino gehiago jatorri pribatukoak dira, eta 1.669.743 euroko zenbatekora iristen dira. Elkartutako pertsonen eta enpresek 1.278.805 euroko ekarpena egin dute, Urrezko Zozketan 35.325 txartel saldu dira (176.625 euro baino gehiago), eta nazioarteko eta Estatuko larrialdietarako bilketari eutsi ahal izan zaio.

Bazkideak

Bazkideen ekarpenei esker, Erakundea independenteagoa izan da gizartearentzat beharrezkoak diren proiektuak gauzatzeko. 2017. urtean, Arabako Gurutze Gorriak beste 296 bazkide gehiago izan ditu, eta, beraz, **10.494** pertsonara igo da beren ekarpenen bidez independentzia hori ahalbidetu duten pertsonen eta enpresen kopurua.

Emaileak

Emailen ekarpenei esker, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboek arreta eskaini ahal izan diegu, eta arreta berezia jarri dugu krisiaren ondorioz babesgabetasun handiagoa jasaten duten pertsonengan, hala nola familia desegituratuak seme-alabengan eta bakarrik bizi diren eta baliabiderik ez duten adineko pertsonengan. "Orain inoiz baino +" deiarekin, krisi ekonomikoak gizartean duen eragina arintzen saiatzen gara.


Emailen dohaintzak gardentasun osoarekin kudeatzea da Gurutze Gorriaren arauetako bat. Horregatik, urtero-urtero txosten batean jasotzen da Erakundeak nola kudeatu dituen dohaintza horiek. Txosten horretan, hasitako proiektu bakoitzean egin den lan guztia azaltzen da testigantza-gutun bidez.

Enpresen laguntza


Enpresen laguntza eta Arabako Gurutze Gorriaren eta enpresen arteko aliantzak estrategikoak dira, eta gero eta zeharkakotasun handiagoarekin kudeatzen dira. Enpresak funtsezkoak dira enplegu-programetan emaitza onak lortzeko, kanpainak hartzaileen artean zabaltzeko, funtsak biltzeko, prestakuntza-edukietan prestatzeko eta proiektuak zuzenean finantzatzeko. Azken batean, **enpresen lankidetzaren eta gizarte-erantzukizuneko politikak garatzen laguntzea nahitaezkoak dira gizarte-kohesioa eta garapen jasangarria bermatzeko.**

BAZKIDEAK

ENPRESAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
125	5.815	3.078	2.737
118	6.110	3.301	2.809
108	6.524	2.941	3.583
103	7.062	3.142	3.920
119	8.139	3.689	4.450
132	8.772	3.903	4.869
131	9.560	4.194	5.366
134	10.064	4.423	5.641
135	10.359	4.551	5.808



2017KO BAZKIDEAK



43,4%

Gizonak

4.551 gizon

55,3%

Emakumeak

5.808 emakume

1,3%

Enpresak

135 enpresa

GUZTIRA 10.494 gizon, emakume eta enpresa





KUDEAKETA EKONOMIKOA

Arabako Gurutze Gorriaren zifrak.

....

GASTUAK JARDUERAREN ARABERA	%
Gizarte esku-hartzea	34,52%
Enplegua	17,25%
Osasuna, sorospenak eta larrialdiak	16,65%
Funts-bilketa eta administrazioa	8,38%
Boluntariotza eta tokiko garapena	7,05%
Administrazioa	6,50%
Prestakuntza	3,16%
Gazteen Gurutze Gorria	2,44%
Irrati-sarea eta komunikazioa	1,30%
Nazioarteko lankidetzeta	1,15%
Kalitatea	0,80%
Ingurumena	0,76%


44



FINANTZAKETA-NEURRIAK	%
Diru-laguntzak	64,49%
Urrezko Zozketa eta loteriak	4,50%
Zerbitzuak ematea	5,79%
Bazkide diren pertsonak eta enpresak	25,16%
Dohaintzak	0,06%

GUZTIRA

4.877.599,45 euro

**64,49%**

Diru-laguntzak

4,50%

Urrearen Zozketa eta loteriak

5,79%

Zerbitzuak ematea

25,16%Bazkide diren pertsonak
eta enpresak



KALITATE-ZIURTAGIRIAK

AENOR KALITATE-ZIURTAGIRIA

- > GKE Benchmarking kudeaketa-gardentasunaren ziurtagiria.
- >
- > Lurreko eta uretako prebentzio-zerbitzuetarako eta osasun-garraiorako Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria.
- > Etxez etxeko telelaguntzako eta telelaguntza mugikorreko zerbitzuaren AENOR ziurtagiria.
- > Diru-laguntzen eta dohaintzen kudeaketaren AENOR ziurtagiria.



ER-0577/2016

46

OSO ONDO ZIURTAGIRIA

- > Uraren erabilerari lotutako jardunbide egokiko zentro efizientearen OSO ONDO ziurtagiria.



BERDINTASUNA

- > Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean laguntzen duen erakundea.

GASTEIZKO UDALA

- > Gasteizko gazte-politikekin aliatutako erakundea.

EZARRITAKO BESTE BARNEKO KALITATE-SISTEMA BATZUK

- > Boluntariotzaren kudeaketa.
- > Interlabora Sarea, immigranteentzako enplegua.





Gurutze Gorria

Pertsonengandik gero eta hurbilago

Espainiako Gurutze Gorria Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Sozietateen Nazioarteko Federazioan sartuta dago, eta Federazioaren barruan sozietate nazionalak pertsona kalteberen aldeko jarduera humanitarioak egitea sustatzen da.

Hondamendien kasuetan nazioarteko sorospena koordinatzearen eta garapenerako laguntza sustatzearen bidez gizakien sufrimenduari aurrea hartzea edota sufrimendu hori arintzea du helburu.

Sozietate Nazionalen Federazioak eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua osatzen dute.

Gizatasuna

Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Mugimendua guda-lekuetan zauritu guztiei –inor baztertu gabe– laguntza emateko kezak sorrarazi zuen, eta ahaleginak egiten ditu, nazioarteko eremuan zein eremu nazionalen, gizakien sufrimenduari aurrea hartzeko eta sufrimendu hori arintzeko, sufrimenduaren eragilea edozein izanik ere. Bizitza eta osasuna babestea eta gizakia errespetatzea du helburu. Elkar ulertzea, adiskidetasuna, lankidetzeta eta herri guztien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.

Inpartzialtasuna

Ez du bereizketarik egiten nazionalitate, arraza, erlijio, egoera sozial edo iritzi politikoagatik. Pertsonak beraien sufrimenduaren arabera sorostera eta haien premiei erantzutera mugatzen da, eta kasurik premiazkoenei ematen die lehentasuna.

Neutraltasuna

Guztien konfiantzari eusteko, Mugimenduak ez du inoiz politika, arraza, erlijioa edo ideologia tarteko direla sortzen diren gatazketan eta gorabeheretan parte hartzen.

Independentzia

Mugimendua independentea da. Sozietate Nazionalak botere publikoei laguntzen diete jarduera humanitarioetan, eta dagokion herrialdeko legeei jarraitu behar diete, baina nolabaiteko autonomia bat izan behar dute Mugimenduaren printzipioen arabera jarduteko.

Boluntarioria

Sorospena borondatez eta eskuzabaltasunez ematen duen mugimendu bat da.

Batasuna

Herrialde bakoitzean, Gurutze Gorriaren edo Ilargi Gorriaren sozietate bakarra egon daiteke. Sozietate horrek guztientzat irekita egon behar du, eta lurralde osora zabaldu behar du bere ekintza humanitarioa.

Unibertsaltasuna

Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da, eta sozietate guztiek eskubide berak eta elkarri laguntzeko betebeharra dituzte Mugimenduaren barruan.



Gurutze Gorria

www.cruzroja.es 902 22 22 92

Gizatasuna Inpartzialtasuna Neutraltasuna Independentzia Boluntariotza Batasuna Unibertsaltasuna